



Dorraako Kontzejuak Meistruban etxeko hiru apartamentuak alokatzeko prozedura hasi du / 7

Amiantoarekin aritu zirenek gaixotasun profesionala lortzeko arazoengatik kezka Adavan elkartean / 6

Irurtzungo Udalak 12 partzela enkantean saldu aurretik diruz laguntzeko ordenantza onartu du / 7

Mikel Mazkianan altsasuarraren denboraldi bikaina car-kros mendi igoeratan / 10-11

Lorena Arangoak herriko emakumeei omenaldia egin die 'Jazinta 'La Potra'' antzezlanean / 15

SINADURAK



JOSUNE AZPIROZ IMAZ / 4



SAKANAKO ANITZARTEAN ZERBITZUA / 4



IRATI EIZAGIRRE SAGASTIBELZA / 13



Ereserkiaren egileak etxean

Gwendal musika taldeak kontzertua emanen du Etxarri Aranazko festen bezperan / 2-3



Kontzertua ordaintzeko kamisetak saltzen ari dira ostegun eta ostiral arratsaldeetan eta igande eguerditan.

"Pentsatzen dugu kontzertua historikoa izanen dela"

KARLOS NABARRO ETA MIKEL OIARBIDE KONTZERTUKO ANTOLATZAILEAK
Etxarriarrek hain estimatua duten kantua sortu zuen taldeak, Gwendalek, koadrila baten ekimenez herrian joko du agorrilaren 2an

Alfredo Alvaro Igoa ETXARRI ARANATZ
Jon Maiak bere disko bati *Kantu bat gara* izenburua eman zion. Etxarriarrek Gwendalen *Irish jig* kantua bere egin dute eta herriatik kanpo ere *Aupa Etxarri!*

gisa da ezaguna. Lagun koadrila baten ekimenez etxarriar askoren ametsa beteko da: Gwendalek herrian joko du.
Nola sortu zen Gwendal taldea Etxarrira ekartzeko ideia?

Mikel. Beti geunden hizketan: "Gwendalen abestia zein famatua den Etxarrin". Duela bi urte Getxoko folk jaialdira gerturatu ziren. Erokeria moduan esan genuen: "hona ekartzen saiatuko

bagina?" Aurreko urtean saiatu ginen, baina birak ez zuen bat egiten. Aurten bai, Galiziara joan aurretik hona etortzeko aukera zegoen eta saiatu gara.

Karlos. Joan zen urtean bidalitako e-postari ez zioten erantzun ere egin. Gero jakin genuen bira luzea prestatzen ari zirela. Duela hilabete-edo lagun batek hots egin zigun esanez Gwendalen ordezkariarekin zegoela eta, data librean inguruan galdetuta, festa bezperarekin bat etorri zen.

Zeinek aipatzen zen Gwendalena?

M. Koadrillan, zurito batzuk hartuz hizketan geundela sortu zen ideia. Haiekin hitz egin dugu, eta dena lotuta dago.

Eta Gwendalek jarraitzen zuen bazenekiten?

K. Bai, tarteka Getxora etortzen zirela jakin genuen. Martxan zeudela jakinda, "nola ez ditugu Etxarrira ekarriko" esan genuen. Horrela hasi ginen.

Taldeak itzala du, hala kobratuko dute. Horrek ez du atzera eragiten?

K. Taldean artista bat dugu eta hura jarri genuen taldearekin harremanetan. Esan genuen: "honek jarriko ditu bere tokian, bere prezioan". Eta hala egin du. Oztopo gehienak pasa ditugu.

Kontzertua antolatzeko jende gehiago elkartu da?

M. Hasierako lagun koadrilari beste batzuk elkartu zaizkigu, taldetxo bat egin dugu, bestela ezinezkoa litzateke. Teknikoki guk ez dakizkigun gauzez dakien jendea behar da, halakoak gerturatu dira. Sei gara.

Zein lan hartu duzue zuek?

K. Momentuz, kamiseten salmenta eta egun horren antolaketa. Gero, beharbada, hartuko ditugu beste batzuk.

Kontzertua ordaintzeko, kamisetak?

M. Herriko gauza bat denez, herriak dirulaguntza hori nola bideratu pentsatzen egon ginen. Eta egokia iruditu zitzaigun kamiseten salmentaren bidez finantzatzea. Herri bezala taldea eginen dugu denok kamiseta bera izanda. Era berean, Etxarriko ereserkia izan daitekeen kantua jotzen duen taldearen kontzertua finantzatuko dugu.

Noiztik kamisetak saltzen?

K. Garagarrilaren 20an. Lehenik kintadetako sare sozialetako taldeen bidez mugitu genuen. Ondoren bakarkako hizketaldiak, etxeetako postontzietan informazioa utzi dugu ere. Diru gehiena hortik ateratzea espero dugu. Pentsatzen dugu gauzak ongi doazela, baina, bestela ere udalaren babes bere badugu.

Noiz eskuratu daitezke?

M. Aste batean enkargatu eta ordaindu egiten dira, eta hurrengoan jaso. Ostegun eta ostiral arratsaldetan eta igande eguerditan gaude plazan. Jasotako eskaerekin igandean bertan eskaera egiten dugu eta eskatu



"KAMISETA SALDUZ ETXARRIKO 'ERESERKIA' JOTZEN DUEN TALDEA PAGATUKO DUGU"
MIKEL OIARBIDE



"NIRETAKO POZGARRIA DA ENTZUTEA: HONEK HERRIA EGITEN DU BAT"
KARLOS NABARRO



EGOKI
Ventanas PVC Leihok
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com



948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

duenak ostegunean jaso dezake bere kamiseta. Jasotako eskaera adina kamiseta egiten ditugu bakarrik, bestela dirua aurrera-zen badugu, bai edo bai dirua galduko genuke. Horrela azkeneo xentimora arte aprobetxatzen dugu. Eskaera egiten duenak bere kamiseta izanen du, bestela erosteko oso zaila izanen da.

Zer harrera izan dute kamisetek?

K. Jendearen aldetik oso erantzun ona izan da. Eta marrazkia oso polita iruditzen zaie. Joseba Beramendi Nazabalena, *Exproairena*, da marrazkia. Gaur (garilak 4) hiruzpalau etorri dira esanez: "herria bat egiten duen zerbait falta zen. Ohituta gaude herria bi zati egiten duenari. Eta honek herria egiten du bat". Hori niretako pozgarria da.

Dirua ateratzeko beste asmorik baduzue?

M. Egunean bertan hanburgesak saltzeko asmoa dugu. Kamiseten salmenta nola doan ikusita, zenbat behar dugun, aztertuko dugu. Ahalik eta diru gehien lortu nahi dugu udalari karga kentzeko. Oraindik denbora badago eta ikusiko dugu.

Ideiak zer harrera izan du Etxarrin?

K. Gure inguruan oso ona. Eta, gainera, jendea deika: "nola da hori? Nola egin duzue?"

M. Dena oso positiboa izan da: "oso ongi! Ideia ona izan duzue! Honek herria egiten du". Oso gauza politik entzun ditugu. Herrian gelditu da albistea eta kanpoan ez dugu ezer entzun.

Noiz izanen da kontzertua?

M. Festen hasieraren bezperan, agorrilaren 2an, ostiralarekin, 21:15ean hasiko da.

K. Gwendal ez da bakarria. Hasierako taldea ere badago: Howdy Bluegrass. Hondarribiko talde bat, Amerikako Estatu Batuetako mendebaldeko musika hori egiten du. Jendeari esan eta harrera ona izan du horrek ere, gustatu zaie.

Plazan?

M. Ez dakigu, zehazteko dago.

K. Gauza da *Irish jip*, *Aupa Etxarri!*, abestia kioskoan dantzatu behar dela bai ala bai. Ez dakigu nola lotu hori.

M. Jendeak kioskoa du buruan. Abesti hori beste edozein tokitan ez da gauza bera. Han egiten saiatuko gara. Baina ez dakit egun horretarako arbolak eta etxe batzuk kendu beharko ote ditugun, herri guztiak egun ho-

rretan dantzatu nahiko duelako. Pentsatzen dugu historikoa izanen dela.

Noiztik ezagutzen duzue Gwendal?

K. Oso gaztea nintzenetik.

M. Betidanik. Lehen orain baino askoz ere gehiago entzuten zen Gwendal, zelta musika, berbetan-eta.

K. Musika instrumentala da. Lehen halakoak gehiago entzuten ziren.

Zuzenean ikusi dituzue?

M. Sekula.

K. Nik ezta ere.

Taldeak urte pila ditu, taldean al-daketarik izan da?

M. Ez dakigu. Abestiak 50 urte dauzka. Taldeak denbora horretan zer ibilbide izan duen... Den-denak ez dira egonen, baina gauza da batera jarraitzen dutela, eta Etxarrira ekarriko dugula.

Badakite nora etortzen diren?

K. Zer edo zer badakitela uste dut. Lehen aipatutako artista hori moldatu da zerbait bidaltzeko. Haiak ikus zezaten bideoa ere eskatu du. Zer ikusiko duten jakiteko girotzen ari da.

Ez da kanta bakarreko taldea.

M. Ez. Agian ezagunena hori da, baina jendea aurretik hasten bada Gwendalen abestiak entzuten ikusiko dute oso talde ona dela. Talde txar batek ez ditu 50 urte irauten. Abesti oso onak dituzte. Gozatzeko aukera edukiko dugu.

Nolako emanaldia espero duzue?

K. Ez dakit. Aurrena gonbidatutako taldea. Gero pentsa dut Gwendal nahiko lasai hasiko dela, baina jendea berotzen joanen dela, abesti horren zain. Eta plaza betetzen joanen da. Eta ez dakit non emanen dugun buelta.

M. Agian sortu daitezke beste borobil batzuk: kioskoan eta beste bat plazako zabalgunehorretan. Zeren denak kioskoan bueltan ez gara sartuko. Behintzat hala espero dugu. Hala izanen da.

Jendeak zertara joan behar du, entzutera edo dantzatzera?

M. Bietara, baina dantzatzera. Gwendalek gure dantzatzeko erara dantzatzeko bidea ematen du. Gu ez gara rock and rolla dantzatzeko-edo. Gu gara lepotik heldu eta kioskoari bueltak ematekoak. Gwendalek horretarako aukera ematen duen musika jotzen du.

Bueltak emanen dituzue?

K. Nahi nuke. Bestela esanen diogu bis bat jotzeko, edo bi, edo hiru, edo lau (kar, kar, kar).

Plaza taldeetan ibilitakoen iritzia



**JUANJO MINTEGI
DORRONSORO**
ADDAR
1986-1988

Gaztetxo zireneko "ateraldi bat" izan zen taldea. Betidanik akordeoia jotakoa, hura modan ez zegoenez, Addarren teklatura jo zuen.

Errepertorioan *Irish jip* zenuten?

Bai. Guk Gwendalen hiru kanta jotzen genituen. Hori kantu ximplea da, errepikatu eta errepikatu. Ez dauka besterik. Baina akorde berdinetan bariazio batzuk egiten genizkion; berdina, bariazio batzuekin, osagarriago egiteko.

Zergatik haien hiru kanta?

Ordurako kantak bazituen urte batzuk. Plazetan oso ohikoa izaten zen. Eta Etxarrin zen ereserki bat bezalakoa. Lehenengo mugimenduak jotzen hastea nahikoa zen jendearen beste zerbait nabaritzeko. Derrigorrezkoa zen.

Zergatik horrelako arrakasta?

Ez dakit. Niretako Gwendalen *Jackson morning* askoz ere politagoa eta osatuagoa da. Behintzat lau zati ditu. Beste hau dena berdina da. Baina hori gustatzen zen. **Izenburua ere aldatu zaio.**


Ez dakit nondik sortu zen *Aupa Etxarri!* Altsasuko lagun batek ere horrela ezagutzen du. Gure garaian Gwendal gisa ezagutzen zen. Eta ematen zuen Gwendalen kanta bakarria hori zela.

Askotan eskatzen zizueten?

Bai. Eta eskatu gabe ere behar bezalako bat ikusten zenuen. Edozein kalejira joenezake, baina honek badu irlandar kutsu hori, eta hemen beti gustatu da zelta musika. Bestaldetik, rantxerak-eta. Baina kalejiretan irlandarrak asko gustatu izan dira.

Beste herriren batek beretako hartu du kantaren bat?

Ez. Nahiz eta errepertorio bera jo, ez zen atzematen hemen gertatzen zenaren bezalakorik.



**JOXE GARZANDIA
IRIARTE**
JATOR
1980-2000

Tronpetak ikasi eta Etxarriko bandan jotakoa. Jatorren jolea behar zutelara, eta horrela sartu zen Garzandia taldean. Ordurako bazuen Jatorrek ibilbidetxoa eginda. Bi disko argitaratu zituen Jatorrek.

Errepertorioan *Irish jip* zenuten?

Bai. Arrakasta izugarria zen. Hemen, Etxarrin, behintzat jendea erotuta ibiltzen zen kioskoari bueltak.

Zergatik horrelako arrakasta?

Musika polita da. Bretoiak dira, zelta musika da. Guri gustatzen zaigu kalejiretan ibiltzea-eta, eta hemen izugarriko arrakasta izan zuen. Suabe hasi eta azkartzen joaten da. Eta esaten genuenean: "buelta erdi", jendeak kioskoari buelta beste norabidean jarri behar eta, askotan, zalaparta handia sortzen zen, batzuk alde batera eta besteak bestera buelta ematen zutelako.

Kiosko gainera ikusita, zer?

Goitik ikusita polita zen. Gozatu handia izaten zen, bai. Gainera, izugarriko abiadura hartzen du jendeak kioskoari bueltak ematean.

Nola eskatzen zuen kanta: Gwendalena edo Aupa Etxarri?

Aupa Etxarri! esateko oraindik ez zen hain ezaguna. Gwendalen kanta zen, eta jendeak hala eskatzen zuen.

Askotan eskatzen zuten?


Askotan eskatu, eta guk jotzen genuen. Jotzea gustatzen zitzaigun, jendea gustura ibiltzeko, bueltak.

Beste herrietan arrakastatsua zen?

Herri guztietan jotzen genuen.

Beste herriren batek beretako hartu du kantaren bat?

Gure taldean mexikar doinuak garrantzitsuak ziren. Ez dakit zergatik baina Euskal Herri guztian asko gustatzen dira.



**MIKEL MUNDIÑANO
LARRAZA**
TXIMELETA
2001-2020

Mundiñano Anaiak taldean aritu ondoren, Jatorretik zetozenekin bat egin eta trikitixa jo eta abesten segitu zuen Tximeletan. Disko bat argitaratu zuten.

Errepertorioan *Irish jip* zenuten?

Hasieratik. Jatorrek eta Mundiñano Anaiak-ek jotzen zuten. Horren zabalpenaren kulpa handi bat badugu ere.

Ordurako ezaguna zen kanta.

Bai, baina ez *Aupa Etxarri!* bezala. Orain dela gutxi hasi dira herri-tarrak kantu horri horrela deitzen.

Nondik heldu da izen hori?

Kantu horren momentu batean isilunea dago eta oso egoki gelditzen da "Aupa Etxarri!" esatea. Hori, ziurrenik musikari batek probokatua da. Ez dakit gu izan ginen edo ez. Baina pixkanaka hedatu da, eta horrela deitzen hasi ziren. Jotzen duzunean jendearen garrasia entzuten da.

Zergatik da hain ezaguna?


Kalejira alai bat da. Kioskoak gainera ahalbidetzen du kalejira egitea. Belaunaldiz belaunaldi kantu hori herriko memoria kolektiboan sartu da. Eta guk probokatu dugu: plaza hutsik bazegoen plaza betetzeko bermea zen.

Askotan eskatzen zen?

Askotan, askotan, askotan. Jendea "nahiko astuna" izan da. Eta horrek ahalbidetu du kanta horrek bere popularitate hori lortzea.

Beste herriren batek beretako hartu du kantaren bat?

Ez. Etxarritik aparte asko jo dugu kantu hori. Kantuaren melodia sinplea izan daiteke, baina Tximeletan bagenituen txirula, gaita, trikitixa eta panderoa eta horrek moldatzeko aukera ematen zigun, hain astuna ez izateko. Gaitarekin bigarren zati bat egiten genuen.



ASTEKOA

JOSUNE AZPIROZ IMAZ

Zenbat eta pertsonak gehiago ezagutu...

Orduan eta gehiago maite dut nire txakurra. Hala zioen Lord Byron-ek eta erabat ados nago baieztapenarekin. Orain dela gutxi GUAIXEN irakurritako berriak, "Sakanan umeak baino txakur gehiago daude", ez dit batere harritzen. Adibidez, gure familian txakur/pertsona ratio hori handitzen laguntzen dugu. Haur bat eta...

Betiko galdera: zenbat txakur dituzue?

Eta zuri zer axola? Erantzuna ez da hori izaten, baizik eta gure familian txakurra gehiago direla pertsonak baino, eta hala ere gutxi iruditzen zaizkigula.

Haur bat bakarrik? Hobeto hiru, taxista batek esaten zidan aurrekoan. Hobeto zer? Ekonomia? Loa?

Horrela ez da bakarrik haziko. Ba justu kontrakoa, gure haurra ez da bakarrik hazten ari, oso inguratuta dago, animalia artean bizi eta hazten ari da. Eta honek, onura asko izan ditzake, enpatia eta garapen sozioemotionala sustatu, ardura jarrerak, sistema immunologikoa indartu, estresa murriztu...

HAURRA, TXAKURRA ALA BIAK IZAN, ZAINDU MAITE DUZUN HORI

Hala ere, txakur bat izatea ez dugu arazo guztietarako erantzun erraza bezala hartu behar. Hau da, beraiekin bizitzeak onura asko ditu, baina erabaki pentsatu behar du izan. Ez da momentuko nahia edo inpulsoa, ardura handia baita. Eta askotan ekarriko dituen onura horiekin itsututa, txakurra gure gizaki itxaropenak betetzen ez baditu... badakigu zer pasa daitekeen, eta batez ere udan zer pasatzen den.

Txakurtegi batean utzi edo norbaiten etxe aurrean, Gabonetan guri pasa zitzaigun bezala. Norbaitek txakurra ez zuela nahi erabaki eta zuk irtenbide bat bilatuko duzulakoan...

Haurra, txakurra ala biak izan, zaindu maite duzun hori.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Palestinarekin bai, eta sahararekin ere bai

SAKANAKO ANITZARTEAN KULTURARTEKOTASUN ZERBITZUA

Ekainaren 20a, Errefuxiatuen Nazioarteko Eguna pasa berri den honetan, ezin ahaztu hainbat eta hainbat lurralde, herri eta gizaki. Arrazoi anitzengatik gatazkan dagoen inongo herririk bazterrean utzi gabe, Palestinarekin bai, Sahara ahaztu gabe.

Nazioarteko komunitatearen axolagabekeriarekin eta komunikabideen isiltasunarekin, 48 urte daramatza saharar herriak erbesteratzea sufrizten, bizitza aurrera ateratzea ia ezinezkoa suertatzen den baldintza bortitzetan: euriteen gutxitze larria azken urteetan; udako

temperatura itogarriak (55 gradutara iritsi arteraino). Hori gutxi ez, eta saharar herriak aurre egin behar dio superbizitzeko oinarrizko osagarrien eskasiari. Uraren eskasia, 17 litro pertsona eta egun bakoitzeko; 5 urtetik beherako haurren erdiak baino gehiagok anemia pairatzen dute; emakumeen %53ak anemia dauka...

Banatzen diren oinarrizko elikagaien saskiak herritarren %75engana iristen dira, eta banatzen dena ez da nahikoa ez kuantitatean, ezta mantenua ere.

Ikusezina bihurtu eta denboran gehiegi luzatu den gatazka honen ondorioak,

saharar herrian eragiten du bete-betean, oinarrizko eskubideak urratuz, eta dependentsia humanitariora behartuz. Azken urteetan, su etenaren hausturaren ondorioz, ia 5.000 pertsona desplazatu dira bere egoera larrian dauden asentamenduetara, egoera larriagotuz.

Saharako pertsona errefuxiatuen egoera jasanezina eta kritikoa bihurtzen ari da egunero. Horregatik gizarte zibilak mugitzen jarraitu beharko genuke, Sahararen gatazka modu baketsuan konpon dadin aldarrikatzera, besteak beste.

Distantziak salbatuz, esan liteke Saharako ere beste genozidio bat dela? Distantziak salbatuz berriro, hau genozidio isila, irudirik gabea, edo genozidio isildua? Palestinarekin bai, eta Sahararekin ere bai.



OBJEKTIBOTIK


www.guaixe.eus

Maketatzailea:

lune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
619 821 436
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Lege gordailua: NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK



Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
erredakzioa@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maidor Betelu Ganboa
kiriolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Irratia:
Eneida Carreño Mundiñano
irratia@guaixe.eus
948 567 074

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus
661 523 245

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

*Zure laztanek
zoratu egiten
naute.*

*Zure errespetuak,
are gehiago.*



**Nafarroan...
Gozatu, partekatu eta
errespetatu**



#PrebentzioNeurriakErabili
#PresiorikEtaGezurrikEz
#EtiketikGabekoMaitasuna

Gobierno
de Navarra  Nafarroako
Gobernua



Estalpea finkoa egiteko laguntza lortu du Lakuntzak

Cederna Garalurren bidez Landa Garapenerako Programaren 60.000 euroko laguntza jaso du

LAKUNTZA

Lakuntzako Udalak plazan estalpea egiteko 180.456,58 euroko (BEZ barne) aurrekontua duen proiektua du, eta lanak emateko deialdia egina du. Lan horiek finantzatzeko udalak Landa Garapenerako Programari dirulaguntza eskatu zion, eta 60.000 euro jasoko ditu, aurrekontuaren herena. Udalaren nahia da lanak uda akaberan hastea eta neguko festetarako prest izatea.

Estalpea udaletxearen eta autobus markesinaren artean eraikiko da. 236,50 m²-ko azalera izanen du, 6 eta 3,5 metro arteko altuera, 10,5 eta 12,5 metro arteko zabalera eta luzeran 21,5 metro izanen ditu. Egitura altzairu laminatuko profilekin eginen da eta altzairuzko txapaz inguratuta egonen dira. Barneko bigarren egitura egurrezkoa izanen da. Teiladuran, berriz, txapa eta argia pasatzen utziko duten polikarbonatoko xafla gardenak izanen dira.

Landa Garapenerako Programak Europako Nekazaritza Funtzaren eta Nafarroako Gobernuaren dirua jasotzen du. Nafarroako Mendialdeko eskaerak Cederna Garalurren bidez aurkezten dira eta haiek aztertuta ebazten dute laguntza nori eman.

Kaixo
Kafetegia, Jateetxea

Menua,
plater konbinatuak eta
ogitarteko aukeran

García Ximénez 20-22
948 469 124 Altsasu
www.restauranteKaixo.com



Adavaneke Purik eta Jose Manuelek nabarmendu dute garrantzitsua dela amiantoarekin lan egin izanaren zerrendan egotea.

Amiantoz gaixotutakoek gero eta zailago dute

Lan Osasunaren Institutuak aldeko txostena egin arren, Gizarte Segurantzak bi baldintza betetzen ez dituzten langileei ez die gaixotasun profesionala aitortzen. Kalte ordainak lortzeko epaitegira jotzera behartzen dituzte

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Gizarte Segurantzak azken aldian duen jarrerarekin oso kezkatuta daude Adavanen, Nafarroako Amianto Biktimen Laguntza Defentsa Elkartearen. Hala jakinarazi digute elkarteko kide Puri Adrian Villaverdek eta Jose Manuel Bueno Perezek. "Amiantoak eragindako gaixotasun profesionalak aitortzeko prozesuan Gizarte Segurantzak biktimizekiko mesprezuzkoa eta negazionista den jarrera bat du. Duela zortzi urte baino askoz okerrago gaude", salatu dute. Hala jakinarazi zioten Nafarroako Gizarte Segurantzako zuzendari berriari gargaartzaroren 17an egindako bilera.

Adrianek azaldu duenez, "amiantoarekin lan egin zuen langilea gaixotu eta Lan Osasunaren Institutura jotzen du. Erakundeak bospasei hilabeteren ondoren txosten bat egiten du aitortuz pertsona hori gaixo dagoela enpresan amiantoarekin lan egin zuelako. Baina Gizarte

Segurantzaren ez diote gaixotasun profesionala aitortzen". Buenok argitu duenez, "Gizarte Segurantzako zuzendariak esan zigun lan handia dutela. Eta amiantoko biktima bat aitortzeko bi baldintza bete behar direla: gaixotutako pertsona amiantoarekin lan egin zuten langileen zerrendan agertzea eta berak lan egin zuen enpresa amiantoak erabili zuten enpresen zerrendan egotea. Hortik ez da ateratzen eta ez du malgu jokatu nahi, eta eskaerak ukatu egiten ditu".

Eta "malgu" jokatzeko aukerak badituela adierazi du Adrianek: "Lan Osasunaren Institutuaren aldeko txostena du. Gainera, enpresa berean amiantoagatik gaixotutako beste pertsonen kasuak onartu dira lehenago eta, horregatik, enpresak zigortu izan dituzte. Gertatu da langile bati gaixotasun profesionala aitortzea eta haren ondoan lan egiten zuenari ez". Aurrekariak daudenean horiek kontuan hartzea eskatu dute elkartekideek.

Trabak

Haserretzen dituen beste kontu bat Gizarte Segurantzak erantzunak emateko hartzen duen denbora. "Lan Osasun Institutuaren aldeko txostena izanda, ez da onargarria ebazpena emateko urte bat baino gehiago pasatzea. Prozesuak artifizialki luzatzen dira, biktimak berriro biktima bihurtzen ditu eta haien sufrimendua luzatzen du. Horregatik, Lan Osasuneko Institutuaren aldeko txostena dagoenean, aldeko ebazpenak arrazoizko epean eman behar dira, bizpahiru hilabetetan", esan du Buenok.

Aldi berean, gaixotutako pertsona amiantoarekin lan egin zuten langileen zerrendan agertzearen inguruko zehaztasunak

"AMIANTOAGATIK GAIXOTU DIREN BIKTIMAK BERRIRO BIKTIMIZATZEN ARI DIRA"

egin ditu Adrianek: "Lizarrako Agni enpresak 250 langile zituen, baina zerrendan 50 besterik ez daude. Eta beste enpresetan antzeko. Zergatik? Enpresek zerrenda horretan langile gutxiagoren izena ematen zuten, horrela mediku azterketa gutxiago egiteko". Osasuna eta dirua balantzan jarrita, diruaren alde egiten du. "Enpresek eta Gizarte Segurantzak bazekiten amiantoa minbizi sortzailea zela eta ez zuten langileondako bitartekorik jarri. Orain enpresariengatik pena adieraziz. Bileratik inpresio txarrarekin atera ginen", azaldu du Buenok.

Elkarteko kideen susmoa da Gizarte Segurantzak enpresarien presioak jaso dituela epeak luzatu eta kontrako ebazpenak emateko. "Zuzendariari galdetu genion eta ezetz erantzun zigun", argitu du Adrianek. Baina erantzunak ez ditu Adavanekeak konbentzitu. Izan ere, pertsona bati gaixotasun profesionala aitortzen bazaio enpresak kalte ordaina pagatu behar dio. Eta hiltzean haren alargunak pensioaren %100 jaso behar du. Gaixotasun profesional aitortza ukatzen denean epaitegia da azken aukera.

Auzibideak

Epaitegira jotzeko dokumentazioa behar da, zaila enpresak itxi badu. Eta lekukoak behar dira. Batzuetan semeak aitaren enpresa berean lan egin dezake eta ez deklaratzeko presioak jaso. Adrianek salatu duenez: "oso erraz ari dira epaiketak bertan behera gelditzen, hau eta bestea falta dela esaten dute enpresetako abokatuek. Horrek auzia zortzi edo hamabi hilabete atzeratzea dakar. Azkenean, hiruzpalau urte pasa daiteke epaia atera arte". Eta bitartean pertsona gaixotu eta minbizia gara dezake. "Biktimak berriro biktimizatzen ari dira. Gero eta zailagoa da amiantoagatik gaixotasun profesionala aitortzea".

Epaia iritsi aurretik gaixoak hil izan dira. Horrek enpresek ordaindu beharreko kalte ordainetan ere eragina du. Bizirik badago 200.000 eta 300.000 euro artekoak izan daitezke, hilda badago, txikiagoak dira. "Gertatu izan da ere hildakoaren familiari mingarriegia egitea epaiketarekin segitzea eta prozesuaren erdian bertan behera uztea", azaldu dute elkarteko kideek.

Udalak dozena bat partzela salduko ditu

Urte akaberan egingen da enkantea. Urbanizazio berrian daude eta etxe elkarri atxikiak eraikitze balio dute. Enkantera irurtzundar gehiagok aurkezteko aukera izan dezaten, udalak etxebizitzarako lurzorua erosteko laguntzen ordenantza onartu du

Alfredo Alvaro Igoa IRURTZUN

Herriaren hegoaldean urbanizazio berria du Irurtzunek. Han familia bakarreko etxebizitzetarako 29 partzela sortu dira, hamazazpi partikularrenak eta hamabi udalarenak. Azken horietako zortzi saihesbidearen parean daude eta gainontzeko lauak Lizarra kalearen parean, hegoaldean. Haien azalera 143 eta 163 m² artekoa da. Unai Razkin Iriarte alkateak azaldu duenez, "legeak horrela ezartzen duenez, enkante publiko bidez salduko ditugu partzelak. Urteko azken hiruhilekoan izatea espero dugu eta nahi duen guztiak parte hartzeko aukera izanen du". Deialdiari buruzko zehaztasunak uda pasa ondoren emanen ditu udalak.

Alkateak gaineratu duenez, "etxebizitzarako sarbidea eskubide bat dela pentsatzen dugu. Horregatik, sarbidea errazteko ohiko etxebizitzarako lurzorua erosteko dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza onartu du udalak". Razkinek esan duenez, "helburua da enkante publikoaren arauak mugatzea. Bestela, oihaneko legea da: berdin du etxe bat duzun edo ez, berdin du lursaila duzun, berdin du diru asko edo gutxi duzun... Guztiak berdin du. Bakarririk jartzen duzun diruak balio du". Hori arautu nahian, "eta saiatzeko irurtzundarrak bertan gelditzeko, eta herrian bizitzaren duten aukera izateko onartu da ordenantza. "Gazteek sarbide txiki bat izatea ere nahi genuen, jakinik horiek etxe elkarri atxikiak direla eta garestiak direla. Baina horregatik zehaztu ditugu baldintza batzuk".

Ordenantza

Araudiaren arabera, lurzorua erosteko laguntza eskuratu dezakete Irurtzunen erroldatuta daudenak, gutxienez, bi urteko antzinatasunarekin. Gainera, lur-



Urbanizazio berriko lanak maitatzen despiditu zituzten.

"ENKANTEAREN ARAUAK MUGATZEA DA HELBURUA. BESTELA, OIHANEKO LEGEA DA"

zorua ohiko etxebizitza izateko eskuratu dutenendako izanen da. Etxebizitza jabetzan ez duenak, edo etxebizitza desegokiaren titularra denak ere eska dezake. Mugak ere badaude: onuradunak ezin izanen du etxebizitza hori hogeitaz urteko epean saldu edo utzi. Bestetik, eskritura sinatzen duenetik urte bat izanen du obra lizentzia eskuratzeko. Lizentzia hori jasotzen denetik bi urte izanen dituzte etxeak egiteko.

Dirulaguntzaren zenbatekoari dagokionez, lizitazioaren oinarriko prezioaren eta dagokion lursailarengatik ordaindutako prezioaren arteko aldea izanen da, beti ere, lizitazioaren oinarriko prezioaren bikoitza gainditu gabe. Udalak zehaztu duenez, laguntza diruz lagun daitekeen prezioaren %100era irits daiteke. Dirulaguntzaren kuantifikazio zehatza honako irizpideak apli-

katuta lortuko da: gehienez %50, baldin eta Irurtzunen bi urte baino gehiagor erroldatuta dagoela egiaztatzen bada lursaila erosi zenetik; %40 gehiago, aurrekoaz aparte, eskuratzailerak 35 urtetik beherakoa bada eta %10, eskuratzailerak familia ugaria bada.

Gobernua

Irurtzundar Udalak herritarren etxebizitza premia zein zen jakiteko inkesta egin zuen 2021eko otsailean. Bi eskaera nabarmendu ziren: familia bakarreko etxebizitza baten bila dabiltzan familia helduak eta etxebizitza bat eskuratu nahi dutenak. Razkinek gogorarazi duenez, "hirigintza planaren moldaketa egin zen eta Trinitate kalean dagoen kameneroen partzelan etxebizitzak egiteko". Alkateak jakinarazi duenez, "han pisu blokeak eta babes ofizialeko etxebizitzak eraikiko lirateke". Razkinek azaldu duenez, "epe motzean ez dugu eraikuntza lanik aurreikusen, baina Nafarroako Gobernuarekin harremanetan gara partzela horri irtenbidea lehenbailehen emateko". Parean dauden gobernuaren bi etxebizitza blokeez ere galdetu du udalak.

Dorraoko Kontzejuak hiru apartamentu alokatu nahi ditu

Meistruban etxe berrian daude eta irailean bizitzera sartzeko moduan izanen dira

DORRAO

Dorraoko Kontzejuak hiru apartamentu etxebizitza iraunkor gisa alokatzeko baldintzak zehaztu ditu. Izan ere, apartamentu horien eraikuntzarekin kontzejuak helburu bikoitza du: biztanleria finkatzea eta errenta txiki-kopertu laguntzea. Horregatik, apartamentuak alokatzeko garaian hiru aspektu kontuan izanen ditu. Familia unitateari dagokionez, zenbat kide dituen, adina eta haurren presentzia. Bestetik, kontzejuak eskatzaileen Ergoienarekin hurbiltasuna eta harremana kontuan izanen du. Hau da, Dorrao, Ergoiena edo Sakanako bizilagun edo bizilagun baten senide izatea eta lanpostua Ergoienan edo Sakanan edukitzea. Azkenik, kontzejuak eskatzaileen euskararen ezagutza modu positiboan baloratuko du.

Alokatu nahi dutenendako bestelako baldintzak ere zehaztu ditu kontzejuak. Batetik, etxebizitza baten jabe ez izatea, eta familia etxebizitzan edo alokairuan bizitzea. Bestetik, alokatzaileak konpromisoa hartu behar du etxebizitza ohiko eta modu iraunkorrean erabiltzeko, eta kontratua sinatu eta 15 eguneko

epean, erabiltzaile guztiak Dorraon erroldatuta egon beharko dute. Baldintza berak betetzen dituztenen kasuan kontzejuak erabakiko du apartamentuak nori alokatu.

Alokatu nahi dutenek eskabidea eta egiaztagiria aurkeztu behar dituzte. Aurrez aurre, Ergoienako udaletxean, astegunetan 08:00etatik 15:00etara. Bestela, info@ergoiena.com helbidera bidali daitezke. Eskaerak gari-laren 22ra arte aurkez daitezke. Emaizta hilaren 31rako edo emanen du.

Beheko solairuan bi apartamentu txiki daude. Ezkerrekoak 55 m²-ko azalera logela, bainugela eta sukalde-egongela du. Hura alokatzeagatik hileko 340 euro ordaindu beharko dira. Eskuineko apartamentuak 60 m² ditu, horrela banatuta: bi logela, bainugela eta sukalde-egongela. Harengatik kontzejuak 375 euro eskatzen ditu hileko. Lehen solairuan 100 m²-ko apartamentua dago. Hark hiru logela, bi bainugela, sukalde eta egongela ditu. Bere prezioa 550 euro hileko da. Apartamentu guztiak ekipatuta daude, baina altzaririk gabe. Informaziorako: 618 94 51 85 (Jon).

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua

Empleo público Empleo público

Oposizioak Euskarabidean (teknikariak eta itzultzaileak)

Nafarroako Gobernuak oposizioak egingen ditu, bai erdi mailako euskara teknikari izateko (11 plaza), bai itzultzaile izateko (5 plaza).

Lehenengo proba kontratazio-zerrendak osatzeko ere erabiliko da.

Izena emateko epeak: uztailaren 22a (teknikariak) eta 31 (itzultzaileak).

Teknikarien oposizioa irailetik aitzina hasiko da, eta itzultzaileena, beriz, abendutik aitzina.

Informazio guztia Euskarabidearen webgunean (www.euskarabidea.es) zein Nafarroako Aldizkari Ofizialean (2024ko ekainaren 20koan eta uztailaren 1ekoan).

FESTAK

ALTSASU

ERKUDEN EGUNA

UZTAILAK 14 Igandea

09:30 Erkudengo ama birjinaren irudia Altsasuko elizatik ermitara eramanean dute.

11:00 Meza.

Ondoren, hamaiketako, zortzikoak eta udalaren eskutik ardoa, gazta eta ura.

ITURMENDI

FESTAK

UZTAILAK 16 Asteartea

KARMEN EGUNA

HAUR, GAZTEEN ETA XIMONA GAZTETXEAREN EGUNA

11:59 Etxajua eta brindisa.

IGAk antolatuta.

12:00 Txupinazoa.

12:22 Kontzentrazioa.

12:00-14:00 Puzgarriak.

13:00 Auzatea eta musika, plazan.

IGAren eskutik.

16:00-18:00 Puzgarriak.

19:00 Herriko dantzariak.

20:07 Auzatea Amaiurrek eta Haritzek girotuta.

IGAren eskutik.

21:33 Herri afari gaztetxeroa.

IGAk antolatuta.

21:45 Zezensuzkoa.

22:00 Gazte afaria.

00:01 Mandroll eta Mataperrosen kontzertuak.

IGAk antolatuta.



ARTXIBOA

ITURMENDI Egunero izanen dira kontzertuak Iturmendin, asteartean Mandroll eta Mataperros, asteazkenean Rumba rumba gaua, ostegunean DJ Pablito mix eta ostiralean Bide batez erromeria.



UZTAILAK 15-19

10:00 Agurra, eguraldia, edukiak aurkeztu eta eguneko kanta

10:15 Prentsaren azalak

10:20 Albisteak eta kirolak

10:30 Hizketan

11:05 Solasaldia Karrape eta Aralar irratiekin

14:00 Errepikapena

Hizketan

Uztailak 15 Euskarabenturako partaide sakandarrak

Uztailak 16 Aupa Etxarri! Ekimena I

Uztailak 17 Bertso saioa (Bertsoa.eus)

Uztailak 18 Aupa Etxarri! Ekimena II

Uztailak 19 Agenda berezia

UZTAILAK 17 Asteazkena

JUBILATUEN EGUNA

13:00 Auzatea jubilatuen eskutik eta Ainhua Kintana akordeoilariarekin musika.

13:12 Munduko Ping-pong txapelketa.

18:00 Pilota partiduak, frontoian.

18:31 Ur jolasak.

19:30 Bonba japoniarrak.

20:00 Auzatea jubilatuen eskutik.

20:30 Chuchin Ibañez y Los Charros.

22:00 Herri afaria.

00:00-03:00 DJ Pezon.

00:03 Rumba rumba gaua, gaztetxean.

IGAk antolatuta.

UZTAILAK 18 Osteguna

SANTA MARINA EGUNA

10:00 Santa Marinarako igoera etxajura.

12:45 Herriko trikitilariak eta kikarak udalaren eskutik.

13:11 Palestinaren aldeko argazkia.

14:00 Bazkariak.

16:30 Gazta birakariaren krossa.

18:00 Jaitsiera etxajua.

19:30 Auzatea San Pedron trikitilariak girotuta.

20:00/00:00-03:00 DJ Pablito mix.

23:38 Sakanako bertso mozkor txapelketa.

UZTAILAK 19 Ostirala

KALDERETE EGUNA

IGAREN RASTA GANJA JAMAICA CLASH REGGAE EGUNA

04:20 Zurrakapotea Ximonaren eskutik.

IGAk antolatuta.

Goizean zehar, Kalderete prestatzea.

13:00 Auzatea eta musika, plazan.

14:30 Mozorrotutako kalderete txapelketa. Mozorro gaia: Rasta ganja Jamaica Clash.

18:00 Eztanda Txarangarekin kalejira.

19:00 Japoniar bonbak.

20:00 Auzatea Pacho Valbuena girotuta.

20:03 DJ Kale, gaztetxearen kanpoaldean.

IGAk antolatuta.

22:58 Bide Aunitz taldearen kontzertua, gaztetxean.

IGAk antolatuta.

24:01 Bubblin' Sound System, gaztetxean.

IGAk antolatuta.

21:45 Zezensuzkoa.

00:00-03:00 Bide Batez erromeria.

IRURTZUN

FESTAK

UZTAILAK 17 Asteazkena

12:00 Haurrendako jokoak,

Barazkigunean.

Barazkigunek antolatuta.

13:00 Barazkigunearen irekiera. Barazkigunek antolatuta.

17:00 Irurtzungo Festak 2024 kartelen erakusketa, udalbatza aretoan.

17:30 Zapiak eta Erraldioen eta Buruhandien Konpartsaren ipuinen banatzea 2023. urtean jaiotako haurrei.

18:00 Festak iragartzeko txupinazoa. Ondoren, Erraldoi eta Buruhandien konpartsa, gaitari, Orritz dantza taldea eta EZK txarangaren kalejira.

20:00 Orritz dantza taldearen emanaldia.

20:45 EZK txarangarekin dantzaldia.

21:30 Jauziak.

22:00 Larrain dantza.

22:30 Zezensuzkoa, kultur etxean hasi eta Gernika parkean amaitu.

00:30 Muxutruk taldea.

UZTAILAK 18 Osteguna

10:00 Dianak.

11:00-12:30 Haurrendako Margo Lehiaketa, plazan.

Oharra: materiala antolatzaileek jarriko dute.

11:30 Herri joko eta jolasak, Gernika plazan.

Izena ematea bertan.

11:30-14:00 Haurrendako parke handia.

13:00 Bermut musikala:

Nafarroako Jotak Estampa Navarra taldearekin, Gernika plazan.

14:30 Herri bazkaria, Atakondoako patioan, Barazkigunek antolatuta.

Mozorroaren gaia: Zirkua.

17:00 Aurpegi margoketa, Irurtzungo Pintura Gelaren eskutik, Foru plazan.

17:00-19:00 Haurrendako parke handia.

17:30 Barazki Gurdiarekin kalejira.

Barazkigunek antolatuta.

18:30 Herri kirolak, Gernika plazan.

19:30 Haurrendako txokolate jana (zeliakoendako egokia), Foru plazan.

Ginkana, Barazkigunek antolatuta.

20:00 *Milagros & Valentina* Lorena Arangoa eta Aintzane Baleztenaren antzerkia, gaztelaniaz, Foru plazan.

22:00 Larrain dantza.

22:30 Zezensuzkoa, kultur etxean hasi eta Gernika parkean amaitu.

00:30 Kresala taldearen kontzertua.



ARTXIBOA

IRURTZUN Asteazkenean, festak iragartzeko txupinazoaren ondoren, Erraldoi eta Buruhandien konpartsarekin batera kalejira egingen dute Orritz dantza taldekoek, eta ondoren emanaldia izanen da.

UZTAILAK 19 Ostirala

10:00 Dianak.

11:30 Erraldoi eta Buruhandien konpartsa.

14:00 Kalderete lehiaketaren epaia.

Izena ematea 13:00ak arte, arkupeetan.

14:30 Kaldereteak.

Antolatzaileek ogia, ardoa, mahaiaik eta aulkiak jarriko dituzte. Izena ematea uztailaren 18ra arte.

17:30 Bazkalostea eta kalejira, kale animazioa Elektrotxufila Elektrotxarangarekin.

17:30-19:30 Zirkua tailerra Levelibular taldearekin, Gernika plazan.

19:00 2024ko Nafarroako

Foru Komunitateko

XIX. Erremonte Profesionaleko Txapelketaren Kanporaketa, ADANOren aldeko txapelketa.

Sarrerek: 16 urtetik behera doan; 16-22 urte, 5 euro; 22 urtetik gora, 10 euro.

19:00 Karaokea, Barazkigunen.

Barazkigunek antolatuta.

20:00 Xaiborrekin musika emanaldia.

22:30 Zezensuzkoa, kultur etxean hasi eta Gernika plazan amaitu.

23:00 Kontzertuak: Mendeku, Naxker, DJ Boletus Rumberus, Barazkigunen.

Barazkigunek antolatuta.

00:30 Gozategiren kontzertua. Ondoren, DJ Jo Ta Txo.





Mikel Mazkieran Segura, horrenbeste ordu sartzen dituen pabilioian car-krosa doitzen.

"Clavijon pilotu onenen denbora berean egoteak asko poztu nau"

MIKEL MAZKIARAN SEGURA CAR-KROS PILOTUA

AUTOMOBILISMOA Car-krosarekin mendi igoeratan lehiatzen da pilotu altsasuarra, eta aurten lehiatutako lau probetatik hirutan podiumera igo da, denbora onak eginda

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

Mikel Mazkieran Segura altsasuarra Urbasa Garaeetako mekanikaria da. Aisialdian ere motorrari lotuta jarraitzen du, duela hiru urte car-krosa erosi, eta mendi igoeratan lehiatzen hasi zelako. Larunbatean Clavijoko igoeran hirugarren sailkatu zen bere mailan, Espainiako Txapelketetan aritzen diren pilotuen denbora berdinetan arituz. "Ilusioz gainezka" dago. **Automobilismorako zaletasuna txikitatik datorkizu?**

Bai, errudun nagusia osaba izan zen. Ni baino 15 hilabete zaharragoa den anaia dut, Xabi. Osabak moto bat erosi nahi zigun, baina aitak arriskutsu ikusten zuen, eta kart bat erosi zigun. Xabik 6 urte bete zituen lehendabiziko txapelketan.

"HEMEN CAR-KROSEK EZIN DUTE MENDI IGOERATAN PARTE HARTU; KANPORA ATERATZEN GARA"

dabiziko txapelketa kart-a erosi ziguten, eta nik 6 urte bete nituenean biek kart txapelketetan parte hartzen genuen.

Lasterketa asko irabazi zenituzten. Nafarroako eta Euskal Herriko Karting Txapelketan lehiatzen ginen, eta zenbait lasterketa irabazi eta makina bat podium lortu genituen. Hiruzpalau urte ibili ginen txapelketetan. 2007an Espainiako Karting Txapelketa joan ginen, probatzera, eta hori izan zen gure azkeneko proba. Kategoriaz igozteaz zegoigun,

eta kart handiagoa erosi behar zen. Biendako aurrekontua oso handia zen, eta utzi genuen. Nolanahi ere, etxean beti izan dugu kart bat zaletu gisa ibiltzeko.

Noiz hasi zinen car-krosean?

Betidanik erakartzen ninduten, kart-ekin duten antzekotasunarengatik. Azkenean, duela 3 urte bigarren eskuko bat erostea erabaki nuen, gaur egun dudana. Lehendabiziko urtean Mendaviara eta Mirandara entrenatzera joan nintzen, Josu Berastegik proba batean lehiatzera engainatu arte.

Zer da car-krosa?

Galdera ona! (kar-kar). Quad baten eta motor baten arteko nahasketa da. Lau gurgil dituen txasis tubularra da, quadaren suspentsioak dituen eta GSXR 600 errepideko motoaren motorra duena. Motorrak 125 zaldiko potentzia du, baina horren arina denez, abiadura handia hartzen du. Bestela, ohiko auto baten elementuak ditu: azeleragailua, freinoa, enbragea, esku-freinoa... Martxak aldatzeko aldaketa sekuentziala du: lehendabiziko martxarako aurrera eman behar diozu, eta besteetarako atzera.

Gidatzeko erraza al da?

Maneiatzeko erraza da, baina ongi eta azkar ibiltzea zailagoa da. Lur gainean edo asfaltoan ibili, gidatzeko modua erabat aldatzen da, eta autoa modalitate bakoitzera doitu behar duzu. **Mekanikaria izatea primeran etorriko zaizu.**

Nik doitzen dut car-krosa, eta egin beharreko konponketa eta aldaketa guztiak egiten dizkio. Mundu honetan mekanikaria behar duzu izan, edo, bestela, diruduna. Autoa %100 izaten saiatzen naiz beti. Pabilioian ordu asko sartzen ditut.

Car-krosak oso garestiak dira?

Barketa batek eta lasterketarako ohiko turismo batek duten balioaren artean daude. Car-krosarako motor gutxi egiten dira, eta garestiak eta lortzeko zailak dira. Dena den, mundu honetan erostea da beti merkeena. Mantenua, lasterketetan izena eman eta asteburu pasa joatea... Ondoren datorrena da garestiagoa.

"LEHEN HELBURUA ONGI PASATZEA DA, BETI; ORAIN, LUR EREMUAN PROBATU NAHIKO NUKE"

Car-kros proba ezberdinak daude.

Lur gaineko lasterketetan, auto-krosean esaterako, auto guztiak batera ateratzen dira probetan. Zure lanaz aparte, ondokoak egiten duena zaindu behar duzu, autoen arteko talkak eta bestelakoak ekiditeko. Bestalde, lur gainean bideko zuloak daude, hautsa mugitzen da... Arrisku gehiago dago, eta matxurak izateko edo autoa apurtzeko aukera gehiago. Mendi igoerak, ordea, asfaltoan jokatzeko dira eta kronometratutako probak izaten dira; autoak banaka ateratzen dira. Gidatzeko orduan asko aldatzen da, izugarri. Nik mendi lasterketak ditut gustuko, eta horietan lehiatzen naiz. Baina aitortu behar dut ere lur gainekoek, lur eremua izeneko probek bereziki, erakartzen nautela. Lur eremu itxi batean kronometratutako probak dira, eta tentatuta nago. Gaztela Leonen halako asko egiten dira.

Sakanan hiru car-kros pilotu zaudete Sakana Motorsport eskudarian: Iñaki Gaulabur ergoendarra, Josu Berastegi urdiaindarra eta hirurak. Eremu hain txikian, bitxia da.

Bai. Iñaki Gaulabur lur gainean aritzen da batez ere, auto-krosean. Josu aurten ez da lehiatzen ari, bizkarrean mina duelako, baina joan zen urtean elkarrekin joaten ginen lasterketetara.

Non lehiatzen zara?

Duela bi urte lasterketa bat egin nuen, probatzeko, Josuk engainatuta: Errioxako Clavijoko igoera. Lehen lasterketa izateko, denbora nahiko onak atera ziren. Joan zen urtean sei-zazpi proba egin nituen. Arazoa da Nafarroako eta Euskadiko Automobilismo Federazioek car-krosei ez dietela mendi igoeratan eta rallyetan parte hartzen uzten. Horregatik, Errioxan, Kantabriar eta inguruetan antolatutako mendi igoeratan lehiatzen naiz. Car-kros zaletasun gehiena Galizian dago. Bertan egiten dituzte car-kros auto gehienak, eta nik nirea bertan erosi nuen. Estatuan zortzi car-kros etxe inguru daude, eta hiru hoberenak galiziarrek dira. **Zergatik car-krosek ezin dute Euskal Herriko mendi igoeratan parte hartu?**

Segurtasunarengatik, hori da hemengo federazioetan ematen duten arrazoia. Car-krosek txasis tubularra dute, barketek bezala; hemen barketei eta formulei igoeratan parte hartzen uzten diete, nahiz eta pilotuak burua



Mikel Mazkarian, Clavijon. Bere kategorian hirugarren izan zen. MONTYPHOTOSPORT

kanpoan izan, estalkirik gabe. Ezin dena ulertu da Errioxan, Kantabrian, Galizian, Gaztela Leonen eta halakoetan car-krosei mendi igoeratan lehiatzen uztea, eta hemen ez. Segurtasuna berdina izango da, ez? Polemika sortzen duen gaia da; baliteke tartean interesen bat ere egotea. Izan ere, car-krosak barketak eta zenbait turismo indartsu baino merkeagoak dira, eta askotan lehia zuzena izaten dute elkarrekin. Agian, hor dago kokxa.

Zein lasterketan parte hartu duzu? Iaz, Clavijo (Errioxa), Arnedillo (Errioxa), Espinaredako Vega (Gaztela Leon), Secadura (Kantabria), Ezcaray (Errioxa) eta beste pare bat igoera egin genituen. Ezcaray lehena izan nintzen nire kategorian, eta Josu hirugarrena; gainontzeko probetan txukun aritu nintzen. Kantabrian maila handiagoa da, car-krosendako propioa den kopa bat antolatzen baitute; horietako bitan aritu ginen. Datorren urtean kopa horretan lehiatzea aztertzen ari naiz, maila eta lehia handiagoa dagoelako. Kopan puntuatzeko proba guztiak egin beharra dago, eta ikusiko dugu. Aurten, dagoeneko lehendabiziko hirurak egin ditut, eta Soriako beste bat. **Zer moduz? Joan zen urtetik hona alde nabaritzen al duzu?**

Bai. Egindako lau lasterketatik hirutan podiumera igo naiz, eta bestean atean geratu nintzen. Espinaredako Vegan nire kategorian hirugarren sailkatu nintzen. Maila handia zegoen eta kostatu zen; horregatik ilusio berezia sentitu nuen. Gero Soriako beste proba batean laugarren sailkatu nintzen; scratch edo sailkapen orokorreko lehen lau

postu onenak car-krosek egin genituen. Ekainaren 30ean Arnedilloko Igoeran lehena izan nintzen nire kategorian, hirugarren monoplazen kategorian (bertan ere barketek puntuatzen dute) eta laugarren scratchean, Porsche ikusgarri baten atzetik. Eta larunbatean 40. Clavijoko Igoeran lehiatu nintzen.

Clavijokoa ongi joan al zen?

Euritsu esnatu zen eguna, lainotsu, baina azkeneko bi mangetan euria egiteari utzi eta ederki gozatu genuen. Egun osoan aurreko postuetan egon nintzen, eta, azkenean nire kategorian hirugarren izan nintzen eta scratchean laugarren. Podiumera igotzeak izugarri poztu ninduen, arerioetako batzuk Espainiako Txapelketan jokatzeko dutelako eta maila handia zegoelako. Euren denbora berdinetan egoteak asko poztu ninduen, gauzak ongi egiten ari garenaren seinale. Pentsa, sailkapen orokorreko lehen lau pilotuak segundo berebarean egon ginen. Igor Ayensa txapelduna (Zapa Car car-krosa) pilotu oso ona da, eta bere denbora 2:05.639koa izan zen; Ruben Artia (BME E46 Compresor) bigarrenarena 2:05.759koa; Luis Angel Muñoz (Zapa Car car-krosa) hirugarrenarena 02:06.767koa; eta nirea (Yacar Cross car-krosa) 2:06.767koa. Car-krosari lotutako San Fermin zapi gorriak laguntza eman zidalakoan nago (kar-kar).

"NIRE LAGUNEK ASKO LAGUNTZEN NAUTE, ETA FAMILIAK ERE. LAN TALDE BIKAINA DUT, ESKERTUTA NAGO"

Hortaz, oso kontentu egongo zara. Izugarri! Ez soilik egindako lanarekin, inguruan dudak babesarekin ere bai. Nire lagunak asko laguntzen naute; nirekin etortzen dira lasterketara eta ahal duten guztia egiten dute. Familiak ere asko babesten nau. Beraz, oso eskertua nago: lan talde bikaina dut. Bestalde, babesleak lortu ditut (Letona Mekanizatua eta Soldadura, M-86 Motorrak, Donibane, Sakana Optika, Next Movil, Barandi, Solo Karting...) eta euren laguntzari esker aurten proba gehiago egingo ditut, hamar inguru guztira.

Zein da hemendik aurrerako nahia?

Helburu nagusia car-krosean ongi pasatzea da, hori beti. Clavijoko igoera zen aurten begiz jota nuena, nire lehen proba izan zelako, eta maila eta zaletasun handia duelako. Iazko arantza kendu nuen, 2023an aurreneko postuetan nengoela azken mangan bandera horia atera, eta azkenean podiumean sartu ez nintzelako. Aurten podiuma lortu dudanez, helburu bat beteta. Abuztuan eta irailean Kantabriako bi lasterketetan aritzeko asmoa dut, eta lur gainean aritu nahiko nuke, auto-krosen batean edo lurreko eremuren batean.

Hortaz, lurrezko eremuetako probekin tentatuta zaude.

Bai. Kronometratutako rally bat bezala litzateke. Gidatzeko modua zailagoa da, lur gainean zuloak eta trabak egon daitezkeelako, eta autoa gehiago mugitzen delako; asko zuzendu behar zaio. Gainera, proba jokatu den tokiaren berri bezperan esaten dizute, entrenatzeko astirik izan ez dezazun. Itsuan zoaz. Halako probak oso politak direla diote pilotuek; ea aukera dudak.

Automobilismoa eta arriskua, betiko leloa.

Azkenean guztiak du arriskua, baina kaskoa janzten duzunean dena ahazten da. Mendi igoeratan nik ez dut inoiz kolperik izan. Hori bai, sekulako beroa pasatzen dugu. Bizkarretik zentimetro gutxira dugu motorra, 100 graduko tenperatura hartzen duena, eta horri pilotuaren trajea gehitzen badiogu... Kontrara, euria egiten badu, bustitzen gara. **Noizbait Urbasako Igoeran parte hartzea gustatuko litzazuke?**

Car-krosarekin Urbasa igotzea ikaragarria litzateke. Nire amestetako bat da, baina egun car-krosarekin ezingo nuke. Beste autoen batekin izan beharko du.

Avilesen irudi oso ona eman dute txirrindulari sakandarrek

TXIRRINDULARITZA Iker Gomez eta Luca Martinez Top 10ean sailkatu ziren, eta Ane Beltran Top 20an

Asteburuan eskola adineko Espainiako Txirrindularitza Txapelketak jokatu ziren Avilesen. Nafarroako selekzioan bederatzik sakandar lehiatu ziren, maila ederrean.

Juniorrak

Gizonezkoen juniorren erlojupekoan (19,5 km) Iker Gomez altsasuarra bosgarren sailkatu zen (23:05), Adria Pericas txapeldunetik (Katalunia, 21:58) 1:07ra. Ekain Imaz altsasuarra hamabigarren izan zen, 1:48ra (23:47). Errepideko lasterketan (135,9 km), Marc Zafra (Katalunia) gailendu zen (3:19:26). Iker Gomez bederatzigarren sartu zen (3:20:59, 1:33ra), eta Ekain Imaz 33. (3:22:30). Ekaitz Perez eta Eñaut Oiarbide ez ziren sailkatu.

Emakumezkoen juniorretan, Nafarroako selekzioko Paula Ortiz izan zen txapeldun handiena, erlojupeko (25:22) eta 82 km-ko errepideko lasterketa (2:20:36) irabazi baitzituen. Errepidean Ane Beltran de Heredia altsasuarra hemezortzigarren izan zen (2:24:24), Ane Berastegi arbizarra 38. (2:32:33), eta Siets Goikoetxea urdiaindarra 43. (2:35:11).

Kadeteak

Kadeteen gizonezkoen mailan, taldekako erlojupekoan (11,5 km) Nafarroa laugarren sailkatu zen (15:38), Valentzia txapeldunetik (11,5 km) 19 segundora. Nafarroako laukotean Luca Martinez lakuntzarra zegoen. Hain zuzen ere, Luca Martinez kadeteen errepideko proban zazpigarren iritsi zen helmugara (1:31:00), Fran Alemany txapeldunetik (Katalunia, 1:30:11) 49 segundora. Igandean, Mauleko lasterketa irabazi zuen Martinezek.

Haurrak

Haurren emakumezkoetan, ginkanan Laura Perez (Extremadura) gailendu zen (2:38.83). Enara Perez olaztiarra 34. sailkatu zen (3:00.26). Errepidean Valeria Piñolek irabazi zuen (Katalunia, 21:16), eta Enara Perez 26. sartu zen (21:31), 15 segundora.

BTT modalitatean, Ekaitz Zufiurre urdiaindarrak haurren gizonezkoen mailako proban parte hartu zuen. Galiziako Guillermo Garciak irabazitako 8,5 km-ko lasterketan (34:13) Zufiurre 54. sailkatu zen (41:20), 7:07ra. Taldekako sailkapenean Nafarroa laugarren izan zen.




JON URRIZA

Sanferminetan, ederki

HERRI KIROLAK San Fermin Herri Kirol Jaialdian, Nafarroako Gizonezkoen Trontza Txapelketan Aritz Legarrea urritzolarra eta Jon Etxeberria txapeldunordeak izan ziren, Josetxo eta Iñaki Barberenaren atzetik. Nafarroako Kadeteen Mailako Trontza Txapelketan, Andra Mari ikastolako Jokin Campos eta Adur Lizarraga hirugarren izan ziren.

Izan giltzarri!



Ekain Alegre Gil Musikaria

Kaixo, Ekain Alegre naiz eta hemendik animatu nahi zaituztet Guaixeko bazkide egitera uste dudalako garrantzitsua dela bertako kazetaritza babestea eta Sakanan gertatzen diren berrietaz informatuta egotea. **Izan zaitez giltzarri!**



[guaixe.eus/
kideak](https://guaixe.eus/kideak)



AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 12

EGIARRETA Antzezlana.

Jazinta 'La Potra' Lorena Arangoaren antzezlanean emanaldia. Gaztelaniaz. Doan.

19:00etan, *Itxasperrin*.

LARUNBATA 13

ETXARRI ARANATZ Mendi irteera.

Larrañeta mendi taldearen irteera: Gabarnie – Taillon – Sarrades – Bujaruelo. Bi egun.
04:45, *Larrañeta elkartean*.

IGANDEA 14

IRURTZUN Antzezlana.

Un día en el campo Irurtzongo Antzerki Tailerraren antzezlanean emanaldia.
22:00etan, *Gernika plazan*.

ASTELEHENA 15

ALTSASU Elkarretaratzea.

Sakanako Pentsiodunen Mugimenduaren Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa.
12:00etan, *Zumalakarregi plazan*.

EGIARRETA Kontzertua.

Alicia Griffiths eta lagunak harpa kontzertua.
19:00etan, *Itxasperrin*.

ITURMENDI Liburu aurkezpena.

Santa Marina – Trinitatea Bakaiku, Iturmendi eta Urdiaingo basiliza Nikolas Arbizuren liburuaren aurkezpena. Ondoren, auzatea. Marina, Trinidad eta Irune izenekoek liburua doan jasoko dute.
19:00etan, *udaletxean*.

BAKAIKU Tailerra.

Gaueko soinuak: sitsak, Aizti Ingurumen Zerbitzuen tailerra. Izena ematea: 613 096 968, 8 euro. Euskaraz eta gaztelaniaz.
22:00etatik 23:00etara, *plazan*.

ASTEARTEA 16

ETXARRI ARANATZ Tailerra.

Nola egin kartelak? tailerra, EGAK antolatuta. Oharra: norberaren ordenadorea eraman.
18:30ean, *gaztetxean*.



IRURTZUN Luisa Aldaburu artistaren artelanen erakusketa. *Pikuxar tabernan*.

ALTSASU Batzarra.

Mutiko Txikiak peñaren 50. urteurrena antolatzeko batzarra: hamaiketako, bazkaria, kamiseta eta txaranga. Urteurrena irailaren 13an izanen da.
19:00etan, *Gure Etxean*.

IRURTZUN Kontzertua.

Festaurrea: Alarma Morea taldearen kontzertua.
20:00etan, *Pikuxar plazan*.

IRURTZUN Udako zinema.

Como dios manda filmaren emanaldia.
22:00etan, *Foru plazan*.

ASTEAZKENA 17

BAKAIKU Tailerra.

Inguruko sendabelarrak, Aizti Ingurumen Zerbitzuen tailerra. Izena ematea: 613 096 968, 10 euro. Euskaraz eta gaztelaniaz.
10:00etatik 11:30era, *plazan*.

OSTEGUNA 18

LAKUNTZA Ur festa goxoa.

Gozamenez programaren *Ur festa goxoa* ekimena: Bainua eta ur jokoak, alkoholik gabeko edariak eta musika.
20:30etik 23:00etara, *igerilekuetan*.



BAZTERRETIK

IRATI EIZAGIRRE SAGASTIBELTZA

Indarkeria estetiko gabeko uda



ZORION AGURRAK



Markel Kastro
Zorionak Markel!!! Ze suertie dakazun, zu zorionak beti oporretan gertatzen die. Ikastolan lanak ederki buketu ttuzu ta gual gustetzen dakizun kirolien golak sartzen aleñiek etten ttuzu. Ongi pasa zu egune! Zuu famelikuek.



Erviti aluminio PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

Etxe zaharren berriztatze eta birgaitzea

ESKELA



Eulogio Gonzalez Navascúes

Gero arte, lagun!

Zure kuadrila

Altsasu



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo eskelak@guaixe.eus

► Eskelen tarifak: 55,90€ / 106,5€ / 143,70€

prezio hauek BEZa barne dute.

► Bazkideek %10eko deskontua dute.

► Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

JAIOTZAK

- **Martina Shukri Muñoz**, ekainaren 29an Irurtzunen.
- **Ekhi Resano Arratibel**, uztailaren 3an Etxarri Aranatzan.
- **Uhaitza Aizagirre Cueli**, uztailaren 3an Ziordian.

HERIOTZAK

- **Ricardo Ruiz de Azua San Roman**, uztailaren 5ean Altsasun.
- **Julian Arzoz Riezu**, uztailaren 9an Irurtzunen.
- **Juan Esnaola Galarza**, uztailaren 10ean Urdiainen.

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZA

Ergoienako Udalak zerbitzu antzeko langile lanpostua betetzeko deialdia zabaldu du: Merezimendu lehiaketa bidez beteko da lanpostua. Deialdian parte hartzeko eskabideak telematikoki aurkeztu beharko dira udalaren egoitza elektronikoa bidez, www.ergoiena.eus webgunean uztailaren 18a baino lehen.

Bakaikun bake epaile kargua betetzeko deialdia zabalik: Informazio gehiago udalarekin. Eskabideak aurkezteko epea garilaren 23an amaitzen da.

OPATUTAKOAK

Etxarri Aranazko udalarekin Wilson markako tenis raketa baten funda beltza opatuta: Irratian dago.

Etxarri Aranatzan 6 giltza aurkitu dituzte: Hotsein! Giltzarra bategan, gomazko bi panpin txikirekin batera. Irratian daude.

LEHIAKETA

Zurrumurruen kontrako ipuin laburren V. Lehiaketa: Anitzasunean elkarbizitza sustatuko duen historia sortu eta lehiaketan parte hartzerako gonbidatuta zaude Mank-en Anitzartean zerbitzuaren eskutik. Bidali zure ipuina anitzartean@gmail.com helbide elektronikora uztailaren 30a baino lehen. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian. Zalentzak 648 070 710 telefonora deituz.

IKASTAROK

Altsasun adinekoen ariketa fisikoko ikastaroetan izena emateko epea zabalik: Eskaintza egoera fisiko mugatu dau den 70 urtetik gorakoei zuzendua. Batetik ariketa fisikoa Inbostia-puntako gimnasioan eta Ur terapia Zelandi kiroldegian. Informazio gehiago www.altsasu.net web orrian eta izen emateak, uztailaren 19ra arte 948 012 012 edo 948 467 662 telefonotara deituz.

Ergoienako Udala ikasturteko ikastaro eskain-

tzat prestatzeko informazio bila: Haurrendako ingeles ikastaroa eta helduentzat sukaldaritza eta ingeles ikastaroak martxan jartzeko informazio hau behar du: zure izen-abizenak, tfnoa, herria, intereseko ikastaroa eta ordutegia. Bidali informazioa info@ergoiena.com e-posta elektronikora edo udalarekin pasatuz zure agorriaren 15a baino lehen.

OHARRAK

Orkli Kooperatibak Orkli Klidea dirulaguntza martxan jarri du: Orkli Kooperatibak 50.000 euro banatuko ditu Euskal Herriko proiektu desberdinak babesteko asmoarekin. Onuradun izateko baldintzak hurrengoak dira; irabazi asmorik gabeko erakundea izatea, egoitza nagusia Euskal Herrian izatea eta proiektu izatera duen proposamena aurkeztea. Proiektuak aurkezteko epea abuztuaren 31n ixten da. Informazio guztia www.orkli.com webgunean eta orkli@orkli.es helbide elektronikoa.

Etxarri Aranatzan aisialdi begirale ikastaroa egin dutenendako dirulaguntza: Udalak diruz lagunduko ditu 2023ko lastailaren 1etik 2024ko maiatzaren 31ra arte egindako ikastaroen matrikulak. Onuradunek gehienez 450 euro jasoko dituzte. Informazio gehiago www.etxarriaranatz.eus web orrian edo udalarekin.

Lakuntzako festetako haurren harrera: 2023an jaito eta Lakuntzan errotatuta ez dauden haurrek zapi jaso nahi badute udalarekin izena eman behar dute garilaren 26a baino lehen.

Bakaikuko festetako Etxera bazkarirako txartelak salgai: Bazkaria uztailaren 24an, asteazkenean, izango da. Helduek 15 eurotan eta langabetuek eta ikasleek 12 eurotan erosi ahal dituzte txartelak dendan, Koxkon edo elkartearen ordenagailuan uztailaren 21era arte.

Altsasuko Zelai kaleko afarirako txartelak salgai: Iragarri dutenez kalejira, herri kirolak, baka-riketa eta musika izanen dira garilaren 20an

egin duen auzotarren festan. Norberak aukia eta postea eraman behar ditu. Txartelak Zelai kafetegian.

Aupa Etxarri kamiseta: Gwendalen kontzertua dela eta atera diren kamisetak probatzeko aukera izanen da Etxarri Aranazko plazan ostegun eta ostiral arratsaldetan, eta igandetan, eguerdian.

Altsasuko Aek euskaldun baten bila dabil: Udak, astean arratsalde batez bi euskaldun berriekin euskaraz aritzeko. Informazio gehiago 600 482 024 telefonon.

Bakaikuko udako auzolanak: Udaren zehar egingo diren auzolanetan izena emateko aukera dago udala@bakaiku.eus helbidera idatziz, 948 562 509 telefonora deituz, 622 268 161 WhatsApp-erara idatziz edota www.bakaiku.eus web orriara sartuz.

Bi autobus ordutegi bertan behera: La Burundesak jakinarazi duenez, Olaztiatik Iruñera astegunetan, 06:30ean abiatzen den busa eta Iruñetik Olaztiara astegunetan, 11:45ean abiatzen den busa bertan behera gelditu dira.

Gurutze Gorriak Altsasuko Otadia aterpetxean laguntzeko boluntarioak behar ditu: Errefuxiatuei gaztelaniazko klaseak emateko astean behin edo bitan eta haurrek jolas jarduerak egiteko. Astean bitan bitan, uztaila eta abuztuan. Gurutze Gorriekin harremanetan jartzeko 617 351 603 telefonora dei dezala edo aterpetik pasatuz.

Etxarri Aranazko Abesbatza Txikiak zure aho-za behar du: 6-15 urte bitarteko haurrek osatuta dago abesbatza eta kide berrien bila dabil. Interesa duenak harremanetan jar dadila corotxikis@gmail.com helbidera idatziz. Informazio gehiago www.coraldetxarriaranaz.com web orrian.

Euskara ikastaro teknikoak egiteko dirulaguntzak: Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak jakinarazi duenez, atzera ere, ikas-keta ofizialak eta aratuak ez diren ikastaro, jardunaldi, biltzar, minte-

gi edo gisakoetan parte hartu duten herritarrei dirulaguntza emateko deialdia zabaldu du. Joan zuten urteko azaroaren 1etik aurrerako abuztaren 31ra bitarteko ikastaroen matrikulak. Bete ere, edozein gairi buruz euskaraz egindakoak badira, aisialdiko monitorea edo zuzendari izateko euskarazko ikastaroak barne. Horiez aparte, euskararen edota hizkuntza gutxituen normalizazioarekin edo soziolinguistikarekin zerikusia dutenak ere lagunduko ditu. Laguntzatik kanpo geldituko dira egoitza eta kilometraje gastuak. Euskara Zerbitzuak jakinarazi duenez, aurreroko abuztaren 31rako bukatuta ez dauden ikastaroen kasuan, gutxienez %80ko asistentzia eskatuko die parte hartzaileei data horretarako. Deialdiari buruzko informazio guztia [sakana-mank.eus](http://www.sakana-mank.eus) webgunean.

Sakanako Mintzakide taldeak: Altsasun astelehenean 10:00etan liburutegian, ostegunetan 20:00etan Lezea tabernan eta ostiralean 9:00etan Kaixo tabernan, Ziordian ostiralean, 17:00etan liburutegian, Etxarri Aranatzan ostiralean 19:00etan Xapatero tabernan, Arbizun asteazkenean 16:30etan kiroldegiko tabernan, Lakuntzan asteazkenean 18:15ean jubitatu elkartearen eta Irurtzunen astelehenean 18:30etan Iratxo tabernan, ostegunetan 9:00etan Pikuxarren eta ostiralean 19:00etan Pikuxarren ere. Parte hartzeko deitu 600 482 024 telefonora.

SOS GAZA. Gernika-Palestina herri ekimenak Yala Nafarroa plataformarekin batera Elkartasun Aktiboa inizatiba martxan jarri du: Netan-

yahu nazioarteko epaileen aurrean eramateko, Gazan elkartasuna proiektuak bultzatzeko Mundubat GKE-ren bitartez eta Palestina leku guztietan ikusarazteko. Ekarpenean ekonomiko egiteko, Nafarroan ES36 3035 0083 2808 3014 0037 kontu korrantearen diru sar dezakezu, edo zure banketxearen aplikazioaren bitartez BIZUM EMN/DONAR atalean Mundubat Fundazioa bilatu eta 08737 kodea erabilita dirua eman.

Aita Mariren 2024ko lehen erreskate misioa finantzatzeko Crowdfunding kanpaina martxan: Itsas Salbamendu Humanitarioak crowdfunding-kanpaina hasi duela jakinarazi du Goteo plataformaren bitartez eta Fiare Banca Eticarekin lankidetzan. Informazio gehiago www.smh.eus web orrian. Parte hartzeko sartu ondoko loturan: <https://www.goteo.org/project/barco-de-salvamento-aita-mari>.

Emakumeen bilgunea-zen zabalpen zerranda martxan: Altsasuko Udaleko Emakumeen Bilgunea WhatsApp aplikazioa zabalpen zerranda bat sortuko du, Berdintasun Zerbitzuetatik antolatzen ditugun ekitaldi eta jardueren berri emateko. Zabalpen-zerrandan parte hartu nahi baduzu, bidali iezaguzu WhatsApp-eko mezua zure izen-abizenekin eta zerrandan parte hartu nahi duzula adieraziz telefono honetara: 628 328 593.

Errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntzak: Establezimenduen komertzialei, ostalaritzakoei eta elkartei zuzendutako dirulaguntzak dira. Diruz lagunduko dira errotuluak, toloak eta ibilgailu

komertzialen errotulazioa. Euskara hutsean idatzita dagoen errotulua jartzen duenari %50 ordainduko zaio, gehienez 500 euro emanen zaizkio. Euskaraz eta erdaraz idatzita daudenei %25a, gehienez 250 euro. Eskabideak aurkezteko epea 2023ko urriaren 31n amaitzen da. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian.

Aralarko Santutegiak museoan bisita gidatuak egiteko aukera: Aralarko Santutegiak museoan ikusi eta bisita egiteko ordutegiak asteartetik larunbatera 11:00etan, 12:00etan, 16:00etan eta 17:00etan. Igandeetan 10:30ean, 11:30ean, 13:30ean, 16:00etan eta 17:00etan. Pertsona bakoitzak 3 euro ordaindu behar ditu.

Patxi Bisquitzen Onbuen itzala filma bukatzeko diru ekarpenak: Otaño bertsoari-poetaren bizitza eta obrari buruzko filma bukatzeko diru ekarpenak egitera animatzen zaituztegu: <https://www.verkami.com/projects/37275-ombuaren-itzala>

webgunearen bitartez egin daitezke edo egilearekin harremanetan jarri eta kontu korrantearen zenbakia helaraziko dizue: pmirenbisquit@hotmail.es emailera idatziz edo 687 841 313 telefonora deituz. Proiektuari buruzko informazio gehiago: <https://pellomariotañoauzolana.eus> webgunean.

iragarki@guaixe.eus
www.iragarkilaburak.eus

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

- Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- GUAIXEK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Ebebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.

- Iragarkiak Guaixe paperean eta guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- Iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

"Betidanik"

948 19 70 70

@Grupolrache

Grupolrache

www.tanatoriosirache.es

Herriz herriko istorioak

Lorena Arangoa clown irurtzundarrak 'Jazinta 'La Potra'' antzezlanaren aurkezten du; herriz herriko esne saltzaile baten istorioa kontatzen du, baina herri emakumeei omenaldi bat da. Gaur, gaztelaniazko bertsiorearen emanaldia egingen du, Itxasperrin

Erkuden Ruiz Barroso IRURTZUN

Jazinta 'La Potra' Lorena Arangoa clown eta aktore irurtzundarraren lan berria da. Baina nor da Jazinta? "Herriz herri ibiltzen den esne saltzaile bat da. Noski, ez da gaur eguneko, gaur egun esnea briketan erosten dugulako. Baina nire amari eta izebei omenaldi bat egin nahi nien". Arangoak azaldu duenez, ez ziren herriz herri ibiltzen, baina herri txiki batekoak dira, Aiegikoak, eta beraiei ez ezik, antzezlanaren emakumeei omenaldi izatea nahi izan du. "Herriko emakumeak feministak izan dira feministak zirenik jakin gabe; ez zuten libururik irakurri edo ez ziren unibertsitatean joan, baina sekulako aldaketak sustatu zituzten". Aktorearen ama eta izebak, esaterako, praktikak jantzen hasi ziren. "Zazpi ahizpa ziren, ez zegoen mutilik etxean, aitona bakarrik, eta kontatzen dute aitona mutilaren bila joaten zela, baina ez zela etortzen. Orduan, alabek mutilak bezala lan egingo zutelana esan zuten, eta hala egin zuten".

Familiako emakumeek "sekulako" istorioak kontatzen dituztela gaineratu du aktoreak: "Festetan errondara ateratzen lehengoak izan ziren; izan ere, aurretik mutilak bakarrik ateratzen ziren, eta haiek mutilak bezainbeste lan egiten zutelana esaten zuten. Gainera, oso guapak ziren". Pertsonaia sortzeko senideekin "elkarriketak, kaxotxen artean" izan ditu, eta istorio horietan oinarrituta *Jazinta 'La Potra'* antzezlanaren sortu du; gaur, uztailak 12, ostirala, 19:00etan, gaztelaniazko bertsiorearen emanaldia egingen du Itxasperrin.

Senideen istorioetan oinarrituta bada ere, *Jazinta 'La Potra'* edo-



Lorena Arangoa aktorea 'Jazinta 'La Potra'' antzezlanaren. UTZITAKOIA

zein herriko emakumeen istorioak izan zitezkeela esan du Arangoak. "Istorioak ez dira gertatu bezala ateratzen; pertsonaia sortzean aldaketa asko izan dira". Esaterako, protagonistak bere egunerokotasunean oso garrantzitsuak diren emakumeak oinarri ditu, "baina ez dira bere familiako emakumeak". Jazintaren ama oso txikia zela hil zen eta aitarekin bizi da. "Oinarrian badago emakumeek transmititu dioten hori guztia; nola esan diote hau eta bestea garrantzitsua dela, ez diela txutxumutxuei kasurik egin behar edo landare honekin ez dakit zer egin dezakeela". Euskal Herrian emakumeen transmisio hori oso garrantzitsua izan dela uste du Arangoak.

Antzezlanaren

Jazinta herrira iristen da eta egun hori oso egun garrantzitsua da lehen aldiz zerbait probatzeko eramaten duelako. "Oso emozionatuta dago jende asko dagoelako; sorpresa hartzen du ez duelako hainbeste jende espero. Emozionatzen da eta pertsona horiei bere bizitza kontatzen hasten da". Obraren zehar ere pertsonaia gehiago agertzen direla esan du Arangoak: "Lehenengo aldia da horrelako pertsonaia egiten ditudala. Gortutza, ahotsa eta abar gehiago landu dugu". Sandra Agerri Iruñean bizi den tafallarra da lanaren zuzendaria, "berak gortutza eta antzerki fisikoa asko lantzen du, baita objektuena ere". Pertsonaien lanketa "oso interesgarria" izan dela esan du Arangoak.

Kale antzerki bat da, eta Jazinta esne saltzailearen istorioa kontatzen du, baina herrira ez ziren etortzen". Istorioaren gauza "polit bat da" herri batean kontatzen diotena beste herri batean kontatzen duela, "lehengo egunkariak edo irratiak ziren; esne saltzailearen inguruan biltzen ziren eta elkarrekin unetxo bat pasatzeko momentua zen". Kontratatzeko tokian herritik kanpo, zelai batean, egitea proposatzen du; esaterako, Baluarteko *Oinak hodeietan* programarekin Ultzaman egongo da, eta ikuilu baten

atarian egingo du antzezlanaren, "behiez inguratuta".

Herri guztiek "antzekotasun asko" dituztela esan du aktoreak: "Besteei buruz hitz egiten dute, emakume soltero bat dago edo alargun gelditu den eta gustura gelditu den emakume bat. Emakume horiek herri guztietan daude". Publikoarekin interaktuatzen duela esan du Arangoak, "baina ez dut inor ateratzen".

Nondik dator *La Potra* (euskaraz, moxal) goitizena? "Sandrak askotan erabiltzen duen hitz bat da eta kuadrillan *La Potra* deitzen diote, nire lehengusina bati *Potra* deitzen diote eta nire amona Petra zen. Joko bat izan da". Gainera, moxalek indarra dutela, baina aldi berean txikiak direnez, "nolabaiteko xamurtasuna" dutela gaineratu du Arangoak.

Kale antzerkia bakarrik egiten duen lehenengo aldia dela esan du irurtzundarrak, "eta hasieran beldurra ematen zidan". Euskarazko bertsiorearen aurkezpenean Larraunen egin zuen, udaletxean egitea aurreikusita zuten baina euria egin zuenez eskolan egin behar izan zuten, eta orain *Pueblerinas* festibalean parte hartzeko deitu diote. "Jaialdi oso polita da emakumeek egindako gauzak aurkeztuko direlako". Uztailaren 19an izango da, Larraionen, eta bertan gaztelaniaz egin behar du; gaurko Itxasperriko emanaldia "entsegu irekia" izango da; "eskerririk asko Arakilgo Udalarari lekua uztegiatik eta beti adi egoteagatik".

Jazinta 'La Potra'-rekin abuztuaren 18an Satrustegiko festetara iritsiko da eta, besteak beste, Aintzane Baleztenarekin *Milagros & Valentina* antzezlanaren emanaldia egingen dute uztailaren 18an, 20:00etan, Irurtzungen festetan. "Beste lasaitasun batekin egingen dute ez nagoelako bakarrik". Urtean zehar ere Patxi Larrea lankidearekin Arangoa *El Paraiso de los Rotos* antzezlanaren prestatzen egon da, Pep Vilarekin, Gironan. Gaiarren estreinua egin zuten, eta urriaren hasieran Irurtzunen udazkeneko denboraldiaren mustutzea egingo dute.

"HERRIKO EMAKUMEAK FEMINISTA IZAN DIRA FEMINISTAK ZIRENIK JAKIN GABE"

"Egun, gazteek errespetua dute, portaera lasaiagoa"

Joseba San Sebastian Gaztelumendik 20 urte baino gehiago daramatza Burundesan lanean, eta sanferminak "eromena" izaten direla dio. Momentu xebreak eta txarrak, denetatik bizi izan ditu lanean, baina egun jendea hobeki portatzen dela uste du

Maidar Betelu Ganboa LAKUNTZA

1 Nuestra consigna por San Fermín, que trabaje la Guardia Civil! dio Aldapa peñaren ereserkiak.

(Kar-kar) Pena da, baina Burundesan lan handia dugu egunotan. Sanferminak erokeria izaten dira, eta aurten bezala direnean, bi asteburu, are gehiago, makurrena asteburuetan delako. Asteazkenean zehar ere lana egoten da, baina beste martxa bat izaten da.

2 Nolako ordutegia duzue?

Burundesan hasi nintzenez, duela 20 urte inguru, txofer gutxiago ginen, eta ordu gehiago sartzea tokatzen zitzaigun. Orain txofer gehiago gara, eta bi txanda daude, goizekoa, 6:00etatik 18:00ak arte luzatzen dena, eta arratsaldekoa, 12:00etan hasi eta suen ondoren, 01:30ean bukatzen dena. Ni gehiago goizez aritzen naiz. Dena den, ez daukagu ere lan planifikazio itxirik, batzuetan, jende asko badago, lana luzatu daitekeelako. Autobusen zerbitzua planifikatzea zaila da, nahiz eta gaur egun hobeki gabiltzan.

3 Zergatik?

Jende askok, gazteek bereziki, txartelak online aurretik



Joseba San Sebastian, sanferminetako zerbitzuetako batean. UTZITAKOIA

erosten dituztelako. Horrek, autobusak antolatzerakoan, lana errazten du. Egun berezi hauetan txartela aurretik erostea gomen-dagarria da, ezin baita %100ean ziurtatu txartela ez duen jendeak tokia izatea.

4 Sanferminetako klasikoetako bat: autobusean lokartu, eta zurea ez den herri batean esnatu.

Klasiko-klasikoa, urtero errepikatzen dena. Herrietara iristerakoan begiratzen dugu, ea jendea jaisten den, baina ezin dugu

denetara egon. Gasteizera iritsi, eta norbait lo dagoela ikustea sarritan gertatzen da. Hurrengo autobusean sartzen dugu bueltan.

5 20 urte hauetan denetariko pasadizoak biziko zenituen.

Burura etortzen zaizunetako bat? Momentu xebreak egoten dira, txarrak ere bai. Gogoan dut behin Asier Beltza eta Etxarriko kua-drilla igo zirela, puntu oso xe-brearekin, nire atzean eseri, eta jende guztiari adarra jotzen ibili zirela. Oso ongi pasa nuen.

6 Urte hauetan bidaiarien portaera aldatu da?

Nik uste dut orain jendea lasaigo dabilela. Gazteek beste era batean egiten dute parranda, eta ez dira horren liskartsuak. Norbaitek autobusean botaka egiten badu, putakeria da, baina garbitzen duzu eta listo. Baina txarre-na da gurekin erasokor jartzen direnean; errespetu falta hori. Gertatu izan zait, eta lankide bat baino gehiago jo dituzte. Zorionez, gutxi batzuk dira. Gaurko gazteek errespetua dute, eta parranda egiteko modua asko aldatu dela uste dut, ez dira horrenbeste aztoratzen. Hori asko nabaritzen da sanferminetan, jaibusean eta egunerokoan. Lehen jaibusean sarritan izaten genituen arazoak, su-itxalgailuak zirela, bata bestearen gainetik jotzen zuelako, jarlekuak apurtzen zituztela... orain lasaiagoa da jendea.

7 Norbaitek detaile politen bat izango du zurekin, ezta? Txurro batzuk ekarri, elkarrizketan aritu...

Jendea tenple onean eta umorez datorrenean guztiak hitz egiten dizute eta denetatik eskaintzen dizute, ardoa zahatetik edatea

baita ere (kar-kar). Edo autobus aurrean korrika hasi, entzierroa bailitzan... Barrenetik bada ere, barre ugari egiten dugu, denetik ikusten dugulako. Gainera, hori da politena, festako giroa.

8 Goizean jendea txuri-txuri eramatea eta gero zikin-zikin etxera bueltatzea, eguneko ogia.

Hori beti! Behin Uharteko gazte bat txupinazora eraman nuen. 11:45ean utzi nuen, eta 13:30ean ekarri nuen bueltan, dena zikinduta, arropa puskatuta... Ordu eta erdian ez dakit zer egin zuen.

9 Maitasun kontuak ere izango dira autobusean, ezta?


Bai, noski! Bikote berriak ikusten dira, bikote ez hain berriak, giro ona, giro txarra... Denetatik.

10 Lakuntzan bizi zara baina lesakarra zara, eta bertan ere sanferminak ospatzen dituzue. Baduzu tarterik joateko?

Saiatzen naiz, baina azken unera arte ez dakit zein egunetan libratzen dudan. Dagokidan egun librea, familia hartu eta Lesakara edo Iruñera goaz, tokatzen dena. Iruñeko sanferminak oso gustuko ditut, egunekoak. Gosaldu, txarangak ikusi, zezen plazako bidean peñen igoera ikusi, kontzerturen batera joan... sanferminak aprobetxatu.


11 Modus Operandi musika taldeko baxu jolea zara, eta uztailaren 7an kontzertua eskaini zenuen Pasai Antxon.


Goizean autobusean lan egin, arratsaldean baxua hartu, eta kontzertura joan nintzen. Hurrengo egunean lanean logure galanta, baina ohituta nago. Gustuko tokian, aldaparik ez.





Eraldatu zure irudia

DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA









DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA **f o**

619 821 436 | Foru plaza, 23-1. Aitzasu
info@gikomunikazioa.eus | www.gikomunikazioa.eus

Eskatu aurrekontua konpromisonik gabe